

Zer da zarata?

LAN-INGURUNEAN ENTZUMENA GALTZEA PREBENITZEKO GAKOAK

Belarriak soinua garunera garraiatzeaz eta orekaren zentzumenari eusteaz arduratzen da. **Lan-giroan zarata arazo iraunkorra izan daiteke entzumenarentzat.** Gehiegizko zaratak kalte itzulezinak eragiten ditu, batez ere denboran irauten badu.

ZARATAREN MEHATXUA



SOINUA

Bibrazio sinple eta konplexu oro, bere intentsitateagatik giza entzumenarentzat jasagarria dena eta norbanakoarengan sentsazio atsegina eragiten duena.



ZARATA

Soinu sinple edo konplexua baina ez-harmonikoa eta intentsitate handikoa, entzumenari intolerantzia eta mina eragiten diona eta norbanakoari, berriz, sentsazio desatsegina.

Zarata energia-mota bat da. Gainkarga eragiten du prestatu gabeko organo batean eta alterazio iragankorra eragin dezake, gainera denboran irauten badu, 'traumatismo akustikoa' sor dezake: hain zuzen ere, gehiegizko zarata baten eraginpean egoten garenean jasaten den gorreria.

Egoera gehienetan zarata nahi ez den efektu gisa agertzen da eta pertsonen osasunari kalteak ("hipoakusia", gaixotasun profesional konponezina) eragiten dizkiola kontuan hartuta, **ingurumena kutsatzen duen beste edozein faktore bezain kezka garritzat jo behar dugu.**

Beraz, zarata oso gauza serioa da, batez ere denboraren aldagaia sartzen denean.



GAIXOTASUNAK ERAGIN AL DITZAKE ZARATAK?

- 1. ZARATA HANDIEN ERAGINPEAN LUZAROAN EGOTEAN:** Entzumena pixkanaka-pixkanaka galtzea, hipoakusiak edo entzumen-galera goiztiarrak.
- 2. INPAKTUKO ZARATEN ERAGINPEAN DENBORA LABURREAN EGOTEA:** Entzumeneko lesio larriak, esaterako, tinpano-haustura. Itze-pistolak, mailuak, daratuluak, su-armak...
- 3. GUTXIAGO EZAGUTZEN DIREN ONDORIOAK:** Estresa eta nerbio-arazoak areagotzea; langilearen komunikazioa eta bizi-kalitatea zailtzeaz gain, atazan erroreak egiteko probabilitatea eta, ondorioz, lan-istripuak izateko probabilitatea handitu dezakete.

ERANTZUN ADIERAZLEEN AURREAN

- ZARATAREN ERAGINPEAN DENBORA GUTXIAGO IGARO
- LANPOSTUAK TXANDAKATU
- AUDIOMETRIA-KONTROL PERIODIKOAK EGIN
- ZARATARI BURUZKO KONTZIENTZIA HARTU
- NORBERAREN ENTZUMENA BABESTEKO EKIPAMENDUAK:

Entzumenean **zarataren ondorioak murrizten dituzten** belarri-babesak dira, soinua arintzeko dituzten propietateei esker entzumeneko kalteak ekiditeko. Belarri-babesak zarataren eraginpean egoten den denbora guztian erabili behar dira.

Hainbat motatakoak: belarri-babesak, tapoiak, zarataren aurkako kaskoak eta kaskoari atxikitako belarri-babesak.

